



**CEA(R)** EUSKADI

Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea

Urteko  
txostena

2016

# Nor gara?

25 urte daramatzagu lanean eta Euskadin erakunde erreferente gara gizaki guztiek babesa eta asiloa lortzeko duten eskubidea aitortzeko borrokan. **CEAR-Euskadin** errefuxiatuen, aberrigabeen eta migratzaileen eskubideak defendatzen ditugu, eta horien garapena sustatzen dugu hartzen dituzten gizarte berrian.

## Historia apur bat

CEARen historia 1979an hasi zen. Urte hartan, pertsona batzuek, babes bila iristen zirenen egoeratik kezkatuta, Errefuxiatuei Laguntzeko Espainiako Batzordea (CEAR) sortu zuten. Proiektu honen zati txiki bat Euskadin jarri zen martxan 1989an. Ez zuten baliabide handirik,

baina ilusio handia zuten. 1996. urtean, CEAR-Euskadi GKE bihurtu zen, **berezko nortasun juridikoarekin**.

## Misioa, ikuspegia eta balioak

CEAR eta CEAR Euskadi bi erakunde dira, baina misio bera dute:

“Gure misioa giza eskubideak defendatzea eta sustatzea da, eta nazioarteko babesa behar duten eta/edo baztertuak izateko arriskuan dauden errefuxiatuen, desplazatuen/lekualdatuen, aberrigabeen eta migratzaileen garapen osoa bultzatzea.”

### AZALEKO ARGAZKIA

© Olmo Calvo / CEAR. 140 bat pertsona gomazko ontzi batean, Proactiva Open Arms GKEaren txalupa motordun batek atoian zeramatzala. Ontzia Libiatik hogeit hamar mila jitoan zebilen, motorra hondatuta, erreskate-taldeak aurkitu zuenean. 2017ko urtarrilaren 12an.


Langile ordainduek, bazkideek eta boluntarioek osatzen dute CEAR-Euskadiko giza taldea, eta elkarrekin egiten dute lan, ikuspegi jakin batekin:

**CEAR-Euskadi aldaketarako eta eraldaketarako eragile gisa finkatu da. Diskriminaziorik gabeko gizarte iraunkor eta justu bat lortzea du helburu, aukera-berdintasunean eta nortasun indibidual zein kolektiboarekiko errespetuan oinarritutakoa, eta, horretarako, integrazio-, gizarte-, kultura-, lan- eta politika-prozesuak lantzen ditu, intereseko beste hainbat talderekin sarean arituz.**




## BALIOAK





## CEAR-Euskadiren osaera

Gaur egun, honakook osatzen dugu  
CEAR-Euskadi:



© Olmo Calvo / CEAR. Estatu Islamikoaren aurkako borrokaldiak direla-eta familiarekin Mosuletik desplazatutako neskatu batzuk, Qayaraheko desplazatuen esparruan. Esparru hori urrian ireki zen, eta egun horietan iritsi ziren lehen pertsonak. Irak, 2016ko urriaren 22an.

# Gure ikuspegia

## Euren prozesuen protagonista

CEAR-Euskadin arreta ematen

diegun **pertsonen garapen osoa** sustatzeko lan egiten dugu. Pertsona guztiak ahalduntzea eta **norbera bere prozesuaren protagonista** izatea bultzatzen dugu. Gure azken helburua da kulturen arteko elkarbizitzatik **gizarte-eraldaketa** sustatzea.



## Emakume eta gizonen arteko ekitatea

CEAR-Euskadin uste dugu erakundeak **ez direla neutroak genero-kontuetan**, gizartearen indarrean dauden balioek, indar-egitura nagusiek eta emakumeak menperatzen dituen desberdinkerian oinarritutako sistema patriarkalak baldintzatzen baitituzte.

Horregatik, **Ekitatearen Aldeko Ekintza Plan** bat egin dugu, 2015-2018 Plangintza Estrategikoaren barruan, eta Emakunderen erakunde laguntzaile gisa gure konpromisoa berriro dugu, laugarren urtez jarraian.



## Metodologia

CEAR-Euskadin 2015-2018 plan estrategikoa egin dugu, eta han, erakundearen 6 xede nagusiak definitzen dira:

- Pertsona etorkin/immigrante, errefuxiatu eta aberrigabeen garapen osoa.
- Beren eskubideen defentsa, nazioarteko babesa eta kulturen arteko elkarbizitzaren sustapena.
- Prozesuen bidezko kudeaketaren finkapena.
- Taldearen garapen pertsonala eta profesionala.
- Baliabide ekonomikoen kudeaketa eraginkor eta jasangarria.
- Ekitatearen sustapena erakundearen bizitzan eta ekintzetan.

## Prozesuen bidezko kudeaketa

Gure estrategia gauzatzeko, prozesuen bidezko kudeaketa hautatu dugu: prozesu estrategikoen, babes-prozesuen eta prozesu operatiboen bidezkoa, hain zuzen.

Etengabeko hobekuntzaren aldeko apustuari jarraituz, gure barne-kudeaketa PREMIE kudeaketa-ereduan oinarrituta dago, 2009az geroztik.

2014ko ekitaldian zehar, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Tecnalía enpresak CEAR-Euskadiren kalitate-sistemaren ikuskaritza gauzatu zuten. Emaitzak positiboak izan ziren eta, hortaz, PREMIE DIPLOMA 2019ra arte berritu dugu.



# 2016ko jarduera nagusiak

CEAR-Euskadik bi lan-ildo nagusi ditu: pertsonen egoeran zuzenean **esku-hartzea** eta **eragin eta parte-hartze soziala**.

## Esku-hartzea

CEAR-Euskadin, errefuxiatu, migratzaile eta aberrigabeen garapen osoa bultzatzeko lan egiten dugu. Azken finean, gizartea eraldatu nahi dugu, eskubide oro aitor diezaion herritar orori, kulturen arteko bizikidetzaz oinarrituta. Eta hori hala izan dadin, **pertsona oro norberaren prozesuaren benetako protagonista** izan dadin lan egiten dugu, esku-hartzearen bidez pertsonen ahalduntzea sustatuz.

## Harrera

2016an, Euskadin, helburu hauek lortu zituen CEAREk: lehen harrera-zerbitzuak finkatzea eta nazioarteko babesa eskatu zein lortu dutenak hartzeko Enplegu eta Gizarte Segurantzako Ministerioak ezarritako zerbitzuko plaza kopurua handitzea, eta, hala, aukera berriak jarri dizkie aurrean gure lurraldera etorritako errefuxiatuei.

Euskadin, lehen harrera-zerbitzuak 2016an Euskadira etorri berri ziren ia 300 laguni lagundu zien estatu guztiko hainbat harrera-plaza lortzen, ebaluazio-eta deribazio-jarduketan bidez.

Nahiz eta 2015ean Bilbon 10 plaza besterik ez izan, 2016aren amaierarako 119 harrera-plaza kudeatu zituen CEAREk EAEn: 42 Araban, 16 Gipuzkoan eta 61 Bizkaian.

Eusko Jaurlaritzak finantzaturako migratzaileen harrerarako Harrera programari dagokionez, berriz, 12 herrialdeetako 34 pertsona hartu zituen eskainitako 12 plazatan. Asilo-eskatzaileekin zein atzerritar-izaera aitor dakien eskatzen dutenekin lan egiten dugu, eta gure helburua da zaurgarritasun handiko egoerei irtenbidea ematea. Gehienetan, programa hori lagungarri izan zen izaera egonkorragoko beste zerbitzu edo baliabide batzuetara sarbidea lortzeko.

## Gizarteratzea

### Gohiabe programa

2016an, CEAR-Euskadik Bizkaiko Foru Aldundiaren Gohiabe programa gauzatu du, Gurutze Gorriarekin, Caritasekin eta Ellacuría fundazioarekin batera. Programa horren helburua nazioarteko babes eskatu zein lortu dutenei integratzen laguntzea da, ezohiko moduan eta arrazoi humanitarioak direla-eta. Horretan, 126 pertsonari lagundu genion lau erakundeon artean, 2016an.

### Hemen programa

Bere ibilbideko bederatzigarren urtean, Hemen programak jarraitu egiten du Bizkaiko Foru Aldundiaren adingabeen babes-zentroetatik irtendako gazte atzerriarrei bidelaguntza ematen eta integrazio-ibilbideak garatzen laguntzen.


2016an ere asko izan dira programara jo duten gazteak, 170, hain zuzen, bizi dugun testuingurua dela-eta: egoitza-baimena izapidetzeko edo berritzeko zailtasunak, baliabide ekonomiko gutxi, laguntza-sare gutxi...

### Lanbideren zentro-laguntzailea

Lanbideren erakunde laguntzaile aitortuetako bat da CEAR-Euskadi. Atzerriarrei orientabideak ematen dizkiegu, **prestakuntza eta lana bilatzen laguntzeko.**







## Arreta psikologikoa emateko zerbitzua

2016an, CEARen Euskadiko arreta psikologikorako saila pertsona bakar bat izatetik hiru psikologo izatera iritsi da urtearen amaierarako. Hautemandako beharrak kontuan hartuta, honako lan-ildo hauek garatu dira:

■ **Taldeko laguntza psikosoziala:** taldeka lan egiteko tailerrak sortu, diseinatu eta abian jarri dira, bai eta sistematizatzen hasi ere, osasun integralarekin eta loaren higieinarekin lotuta.

■ **Banako laguntza psikologikoa:** profesionalen sare solidario bat diseinatu da, egoera zaurgarrian dauden asilo-eskatzailerei eta/edo migratzaileei banako laguntza emateko. Sare horren xedea euskarriak ematea da, laguntzen diharduten pertsonen eta egungo askotariko kasuek aukera izan dezaten beren osasun integrala hobetzeko. Sare horren bidez, gainera, profesionalen arteko harremanak sortu nahi ditugu, lurraldeko esku-hartzea hobetzeko eta, horrez gain, xede-kolektiboari asiloa emateko beharraz sentsibilizatzeke.

■ **Osasun integral eredu:** xede-kolektiboarekin baterako ikerketa, osasun integralaren ikuspegitik egindakoa, hots, osasunaren alderdi guztien elkarrekintzaren ikuspegitik egindakoa (fisikoa, mentala, emozionala, espirituala, erlazionala, soziala eta komunitarioa), pertsonen osasun-eskatzikunei erantzuteko lan-eredu holistiko bat sortzeko, edonolakoak direla ere.



## Zerbitzu juridikoa

### Nazioarteko babes

2016an, gure zerbitzu juridikoak 333 pertsonari aholku eman die nazioarteko babes-eskaerei lotuta, eta pertsona horietatik 277k gure lurraldean eskatu zuten babes hori. Gainerakoetatik asko beste erkidego batzuetara bideratu ziren eskaera formalizatu aurretik.

Asiloa Euskadin eskatu zuten 277 lagun haietatik 29k adingabeak zituzten beren ardurapean, 47 guztira.

Guztira, **17 babes** lortu dira. Horietatik 5 errefuxiatu-estatutuei dagozkie; gainerako 12ak, berriz, babes subsidiarioei, eta Siriatik etorritako pertsonen emandakoak dira, batez ere.

### Aberrigabezia

Era berean, **104 aberrigabezia-estatutu** eskatu, eta 24 lortu dira, Mendebaldeko Saharatik etorritako pertsonentzat.

### Familia-erreferentziarik ez duten gazteak

40 egoitza-baimen eskatu eta berritu dira familia-erreferentziarik ez duten gazteentzat, eta, horrez gain, 14 errekurso jarri zaizkie gazte horien egoitza-eskaerak ezesteko ebazpenei.

### Atzerritartasuna

Atzerritartasunari lotuta, 65 herrialdeetatik etorritako **627 pertsonari** aholku emateko 844 jarduketa egin dira.

### Eraberean programa

Eraberean sareko kide ere bada CEAR-Euskadi. Sare hori Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak sortu zuen, batetik, diskriminazioari aurre egiteko (izan arrazagatiko, etniagatiko edo jaioterriagatiko diskriminazioa edo izan sexu-orientazioagatiko edo –identitateagatiko) eta, bestetik, diskriminazio horren jomugan daudenen eskura informazio- eta aholkularitza-baliabideak jartzeko. Gasteizen dugun bulegotik maila juridikoko laguntza ematen diegu diskriminazioaren biktima izan diren pertsonen eta kolektiboen. 2016an, 12 pertsonari eman diegu laguntza, askotariko arrazoiak direla-

eta (alokairuko etxe bat lortzeko zailtasunak, auzokideekin bizikidetzaz arazoak, laneko diskriminazioa...), besteak beste, Kamerundik, Ukrainatik, Nigeriatik eta Malitik etorritako 6 gizonezko eta 6 emakumezko.

## Eragina

Eragina, CEAR-Euskadiren begietara, ekintzak eta prozesuak abian jartzea da, prestakuntza-, instituzio-, politika- eta gizarte-egituren eraldaketa bultzatuz, horiek baitira errefuxiatuek beren eskubideak erabat lortzeko oztopoak. Laburbilduz, migrazioei lotuta eta giza eskubideen zein asilo-eskubidearen defentsan lan egiten dugu.

Honako hauek izan dira 2016an egin ditugun ekintza nagusiak:

## Desplazamendu behartuen kausak eztabaidagai: ikuspegi eta erronka berriak

2016an aurrera eramane dugun ekimen honen helburuak ziren, batetik, aztertzea zer-nolako eragina duten megaproiektuek (meatzaritza, petrolioari edo bioerregaiei lotutakoek, urtegiak) biztanleriaren desplazamenduan, eta, bestetik, ikusaraztea zer rol bete duten transnazionalen fenomeno horretan. Ekimen horren baitan, zenbait prestakuntza-saio egin ditugu, unibertsitateko, erakundeetako eta gizarte-mugimenduetako eragileei zuzenduta, eta, horrez gain, bi eguneko jardunaldi bat egin dugu (2016ko urriaren 27an eta 28an).



Jardunaldi horretan, manifestu bat aurkeztu zen errealitate hori salatzen, horren eraginez ihesi dabiltzan pertsonak errefuxiatuak direla eta, horrenbestez, nazioarteko babesa merezi dutela ikusarazteko, eta herritarrei eskatzeko inplikazio aktiboa izan dezatela eredu kapitalista heteropatriarkala auzitan jartzeko, eredu horrek biztanleria desplazatzera behartzen baitu. Manifestua gizarteratze aldera, "Kapitala vs Bizitza" bideoa egin da. Bideo horrek eragin handia izan du sare sozialetan, eta solidaritate feministari dei egiten dio, antolakuntza sozial eta ekonomiko berri bat eraikitzeke, alaitasuna eta zaintza bizitzaren erdigunean jarriko dituen.

### **Premiazko 5 neurri, errefuxiatuen eskubideak bermatzeko**

Joan den irailean, hauteskunde autonomikoak zirela-eta, CEAR-Euskadik kanpaina bat abian jarri zuen eskaera bat egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko hauteskundeetan parte hartzekeok ziren alderdi politikoei, beren hauteskundeetarako programetan 5 neurri txerta zitzaten errefuxiatuen eskubideak bermatzeko. Horretarako, alderdi politikoekin bilerak egiteaz gain, 5 neurri horiek CEAR-

Euskairen sare sozialen bidez zabaldu ziren, eta sinadurak biltzeko kanpaina bat egin zen, 5.900 babes-adierazpen lortu zituen, gure webgunearen eta sare sozialen bidez. Kanpaina horren ondorioz, Eusko Legebiltzarrak legez besteko proposamen bat onartu zuen 2016ko abenduan, eta, proposamen horren bidez, Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion premiazko neurriak har zitzala Euskadin errefuxiatuen eskubideak berma daitezzen, CEAR-Euskadik eskatutako bost neurrietako asko bere eginez.

#### **5 medidas urgentes que debe tomar el nuevo Gobierno Vasco para garantizar los derechos de las personas refugiadas**

- ✓ Garantizar que todas las personas refugiadas que llegan a Euskadi puedan acceder a los derechos, servicios y recursos públicos, con independencia de su origen y de la vía de entrada que hayan utilizado.
- ✓ Promover la convivencia intercultural y fomentar una acogida integral, favoreciendo verdaderas ciudades y pueblos refugio.
- ✓ Posicionarse públicamente en contra del acuerdo UE-Turquía y presionar al Gobierno central para que retire su apoyo al mismo.
- ✓ Instar al Gobierno español a que facilite vías seguras de acceso a las fronteras y presionarle para que cumpla los compromisos asumidos en Europa.
- ✓ Exigir la aprobación del reglamento que desarrolle la Ley de Asilo, pendiente desde hace 7 años, en cumplimiento con la normativa europea.



**CEAR**  
Euskadi  
Comisión de Ayuda  
al Refugiado en Euskadi


# Parte-hartze soziala

## Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa.

2016an, Hondurasko bi emakume hartu ziren programa horren babesean.

## Emakume afrikarrak: ahozko narrazioak

Boni Ofogo eta Aiz ipuin-kontalarien eskutik bi saio egin ziren, Basaurin eta Getxon, Saharaz hegoaldeko Afrikatik etorritako emakumeen historiak oinarri hartuta. Ihes egiteko arrazoiak (generoagatiko jazarpenari lotutakoak) aipatu ziren, bai eta bidean eta Europara iritsi zirenean zer aurkitu zuten ere.



## Parte-hartze soziala: eskubideak kalean babesten

Hainbat boluntariok, praktikatako ikaslek, erabiltzailek eta soldatapeko langilek osatutako lantalde batek hainbat jarduera egin ditu gizartea parte har dezan akuilatze aldera.

## 2016an egindakoen artean, hauek azpimarratu behar dira:

### La Zanja

La zanja kultura arteko antzerki-talde baten lanaren emaitza da. Talde horrek zinez uste du garapen pertsonala funtsezkoa dela gizarte inklusibo eta solidario bat eraikitzeko, eta, horregatik, **taldeko kide migratzaileen eta errefuxiatuen testuak** oinarri hartuta gidoi bat idatzi du. La zanjak Maria eta Ousmanne aurkezten ditu, bikote bitxi bat, eta, bikote horren eskutik, gaueko programa bat, pertsona errealak eta beren historia errealak aurkezten dituena.

La zanja 6 aldiz antzeztu da 2016an.



## Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformarekin elkarlanean egindako jarduerak

Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak (OEE) plataformaren helburua Bizkaiko herritarrak sensibilizatzea da, errefuxiatuek bizi duten drama humanitarioaz jabe daitezen, eta, horrela, gizartea solidario egiten joan dadin, bizi dugun une historikoko arazo larriak sentitzeko eta konpromiso pertsonalak zein kolektiboak hartzeko gai izango dena. CEAR-Euskadik hainbat ekintza eta mobilizaziotan parte hartu du, entitate atxiki moduan, eta, horien artean, hauek azpimarratu behar dira:

<http://bizkaia.ongietorrierrefuxiatuak.info/>



## Otsailaren 27ko mobilizazioa

Bizkaiko gizarte zibila antolatu eta kalera irten zen, errefuxiatuak babesteko premiazko neurriak har zitzaten exijitzeko Europar Batasuneko, Espainiako eta Euskadiko erakundeei.



Mobilizazio horrek jende andana elkartzea lortu zuen, eta Bizkaiko Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren ernamuina izan zen. Plataforma horretako kide da CEAR-Euskadi.

# Kultura arteko bizikidetza

CEAR-Euskadiko bizikidetza lantaldeak helburu hauek jarrita diseinatu ditu bere kanpainak, jarduerak eta proiektuak:

- Asiloaren eta immigrazioaren gaineko iritzia sorraraztea Euskadin.
- Aurreiritziak eta zurrumurruak indarrrik gabe uztea.
- Kultura-aniztasuna aitortzea eta ezagutzea.
- Jarduera eraldatzaileak egitea, eskubide eta betebeharrak berberak dituzten herritarren arteko kultura arteko bizikidetza bultzatzeko.

Helburu horiek “Ez utzi endredatzen” kanpainaren jarraipenean jaso dira, sei urteko ibilbidea duen kanpaina horri segida emateko arrazismoaren eta xenofobiaren aurkako borrokan.

Gizartearen parte-hartzea eta kultura arteko harreman interpertsonalak sustatze aldera, lantaldea zurrumurruen aurkako estrategien dinamizazio-gidaria izan da, Basaurin, Gasteizen eta Arabako hiru kuadrillatan. Araban, dinamizazio-lan hori Bizilagunak

kanpainaren inguruan artikulatu da. Kanpaina hori zurrumurruen aurkako agenteen sare bat eratzeko jarri zen abian, eta kultura-jatorri desberdineko pertsonen arteko elkarretaratzeak eta otorduak antolatzen.

Gizartea mobilizatzeko jarduerak Gasteiz Irekia plataformako beste erakunde-kide batzuekin elkarlanean egin zituen CEAR-Euskadiko lantaldeak.

Bukatzeko, lantaldeak ikerlan bat egin eta liburua prestatu du: Jantzideiak, belo islamikoaren eta beste jantzi identitario batzuen gaineko hausnarketa kritikoa sustatzeko diseinatutako argitalpen bat.



# Komunikazioa

2016an bultzada bat eman zitzaion antolakuntzaren komunikazio digitalerako estrategiari, bi sare sozialekin bat eginez (Facebook eta Twitter) eta aurrez sortutako Youtube kanalari indarra emanez. Urtea amaitzean, hau zen aipatutako sareen jarraipen-balantzea: 1505 jarraitzaile Facebooken, 453 jarraitzaile Twitterren eta Youtubeko kanalaren 56 harpidedun.

Horrez gain, marketin sailarekin batera, CEAR-Euskadiren webgunea berriro diseinatu zen eta egitura zein eduki berriak txertatu ziren. 2017ko urtarriletik dago Interneten. Ohiko hedabideen estaldura handia izan zuten bi prentsaurreko ere egin ziren: ekainaren 20a dela-eta bat, eta

Hassanna Aalia saharar aktibistari errefuxiatu-estatutua aitortu izanagatik bestea. 2016an, guztira, ohiko hedabideetan 228 agerraldi erregistratu ziren.

## Marketineko zenbait ekitaldi

### Real Sociedad Fundazioaren Eguna

Real Sociedad Fundazioak errefuxiatuei eta CEAR-Euskadiri eskaini zien bere urteko festa, ekainaren 12an ospatu zena. Han, Real Sociedad Fundazioak lekua eman zion CEAR-Euskadiri bere lana ezagutaraz zezan, eta bertaratutako familien artean antolatutako zozketa solidario batean lortutako irabaziak eman zizkion.





## Fair Saturday

Black Friday delakoaren biharamunean egiten den ekimen solidario bat da Fair Saturday. Ekimen horretan, artistek eta GKE-ek bat egiten dute, herritarren solidaritatea eta elkartasuna akuilatzeke eta kausa sozialen alde lagun dezaten sustatzeko. Iratxe González Villaluenga ilustratzaileak berak antolatutako erakusketa kolektibo bateko diru-sarrerak CEAR-Euskadiri ematea erabaki zuen. Erakusketan babesa gaitzat zuten kalitate handiko ilustrazioak saldu ziren, eta, festaren amaieran, Moncada Veinte taldearen kontzertu bat izan zen. Ticketearen eta ZAWPen laguntza ere izan genuen.



## Iralabarriko San Antonio Abesbatzaren Eguberrietako kontzertua

Iralabarriko San Antonio Abesbatzak bere urteroko Eguberrietako kontzertu solidarioa eskaini zigun. Kontzertu hori Bilboko Eguberrietako ekitaldi klasikoetako bat da, eta Jesusen Bihotza elizan egiten da. Bertaratutako ziren ikus-entzuleek errefuxiatuen aldeko laguntza eman zuten.




# Lana sarean

Hauek dira gurekin sarean lan egiten diharduten erakundeak, instituzioak eta gizarte-mugimenduak:

ERAGILE ALIATUAK	HARREMAN MOTA	JARDUERA
Euskadiko Etorकिन Laguntzarako GKE-en Koordinakundea (Harresiak Apurtuz)	Erakunde kidea	Erakundeen Koordinakundea. Biltzarra. Egoitza Bazterkeriaren Batzordea. Gizarte eta Osasun Batzordea.
BesteBi plataforma	Erakunde kidea	Sareko lana, egoitza-inklusioaren eta etxerik gabeko pertsonen alde.
EAPN – Euskadi	Erakunde kidea	Pobreziaren aurka borrokatzeko Europako Sarea Euskadin. Partaidetza Batzordea. Biltzarra. Osasun Mahaia.
GIZARDATZ	Erakunde kidea	Gizartean esku-hartzeko sektoreko patronala. Biltzarrak.
HEMEN	Partzuergoa	Bidelaguntza gazte atzeritarrentzat. Partzuergoko burua, kudeaketa ekonomikoaren arduraduna.
Harribide Fundazioa	Lankidetzaz-hitza	Gazte-ostatua.
URETAMENDI komunitatea	Ahozko hitza	Ureta gazte-ostatua.
Bizkaiko Foru Aldundia. GUFÉ	Lankidetzaz-hitza	Lokalaren lagapena.
Eusko Jaurlaritzaren Biktimen eta Giza Eskubideen Zuzendaritza	Hitza	Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez babesteko euskal programa.
Kolonbiako Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko plataforma	Erakunde kidea	Giza eskubideen defentsarako Kolonbiako estatuko sarea.
Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua	Kidea kontseiluan	Eusko Jaurlaritzaren organoa; lankidetzaren arloko eragileek ordezkariak dituzte bertan. Kontseiluak proposamenak aurkezteko, irizpenak emateko eta garapenerako euskal lankidetzaz publikoaren jarraipena egiteko gaitasuna dauka.
Boluntariotzaren Euskal Kontseilua	Kidea kontseiluan	Eusko Jaurlaritzaren organoa, boluntariotzarekin loturiko gaietarako buruzko topaketarako, aholkularitzarako eta kontsultarako.
Boluntariotzaz Foroa	Erakunde kidea	Boluntariotzari buruz hausnartzeko eta figura hori sustatzeko gunea, Bizkaian.
Giza eskubideen defendatzaileak aldi batez berriz kokatzeko plataforma globala (Europako Batzordea)	Erakunde kidea	Arriskuan dauden giza eskubideen defendatzaileak aldi batez berriz kokatzeko lanean diharduten nazio mailako, eskualde mailako eta nazioarteko erakundeak koordinatzeko eta lankidetzaz aritzeko europar plataforma.
EUSKO JAURLARITZA. Enplegu eta Gizarte Politiketarako Saila	Lagapen-hitza	Etxebizitzaren lagapena.

ERAGILE ALIATUAK	HARREMAN MOTA	JARDUERA
Donostiako Udala. Gazteria, Lankidetzeta eta Giza Eskubideen Zuzendaritza	Lankidetzeta-protokoloa	Gomendioak egitea eta zinemaren eta giza eskubideen inguruko topaketetan parte hartzea.
Deustuko Unibertsitatea	Hitzarmena	Filosofia eta Hezkuntza Zientziak Fakultateko praktiketako ikasleak. Psikologia Fakultatea. Soziologia Fakultatea. Gizarte Lana. Gizarte Hezkuntza. Zuzenbide Fakultatea. Pedro Arrupe Giza Eskubideen Institutua. NOHA Masterra.
Euskal Herriko Unibertsitatea	Praktiketako ikasleak	Asilo-eskubideari buruzko prestakuntza, Zuzenbide Fakultatea, Gizarte Laneko Fakultatea, Hegoa Masterra, Migrazioen Masterra.
Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua	Hitzarmena	Praktiketako ikasleak. Asilo-eskubideari buruzko prestakuntza. Jarduera publikoen antolaketa.
ATEGORRI-TARTANGA GLHBI hezkuntza-zentroa	Hitzarmena	Praktiketako ikasleak.
Bilboko Udala. Gizarte Ekintza Arloa	Lankidetzeta-hitzarmena.	Erroldatzea etxerik gabeko pertsonentzat.
Botika Zaharra GLHBI	Lankidetzeta-hitzarmena.	Praktiketako ikasleak.
EDE Fundazioa. EDE Fundazioaren hezkuntza-zentroa Garapenerako GKEa	Lankidetzeta-hitzarmena.	MENASekin esku-hartzeko prestakuntza. Praktiketako ikasleak.
Bizkaiko Emakumeak Ahalduentzeko Eskolak	Lankidetzeta-hitzarmena.	Asiloaren, generoagatiko jazarpenaren eta asilo-eskubidearen inguruko sentsibilizazioa.
NAHIA	Lankidetzeta-hitzarmena.	Genero-ikuspegiari eta sexu-aniztasunari buruzko lan-sarea.
Gernika Gogoratzuz	Elkarlana eta lankidetzeta	"Memoria partekatua: asilo-eskubidea, frankismoaren garaiko erbesteratze-espereintzien begietatik" ekimena.
ZAS zurrumurruen aurkako euskal sarea	ZAS zurrumurruen aurkako euskal sarea	EAEn zurrumurruen aurkako estrategia koordinatzea.
ERABEREAN tratu-berdintasunerako eta diskriminaziorik ezerako sarea	Talde Motorreko eta Komunikazio Batzordeko kide den elkarte	Eusko Jaurlaritzak sustatutako sarea, arraza, etnia edota nazio jatorriak, zein sexu-orientazioa eta -identitateak eta genero-identitateak eragindako diskriminazioari aurre egiteko.




ERAGILE ALIATUAK	HARREMAN MOTA	JARDUERA
Gora Gasteiz	Talde Motorreko eta Komunikazio Batzordeko kide den elkarte	Gasteiz plurala eta askotarikoa eraso xenofoboetatik babesteko eta kulturari dagokionez heterogeneoa den bertako biztanleriaren giza eskubideak defendatzeko sortutako gizarte-mobilizaziorako herri-ekimena.
Gasteiz Irekia	Erakunde kidea	Gasteizek aterpe-hiri gisa dituen aldarrikapenak biltzeko sorturiko herri-plataforma.
Isiltasun-zirkuluak Vitoria-Gasteizen	Erakunde kidea	Tokiko politiketan eragiteko xedea duen herritar taldea, gizartetik at geratzeko arriskuan dauden pertsonentzako baliabideen kudeaketa defizitariora salatzen duena.
Emakunderen Emakumezkoen salerosketaren biktimentzako mahaia	Parte-hartzaileak	Emakumeen eta neskatuen sexu-esplotaziorako salerosketaren biktimak hartzeko eta babesteko protokoloa erkidegora egokitzeko mahaia.
EKIMEN ELKARTEA	Erakunde kidea	Gizarte-problematikak aztertzeko, osasuna sustatzeko eta pertsona ororen eskubideak babesteko elkarte.
ECOSISTEMA	Erakunde kidea	ECOSISTEMA proiektuak 11 egoitza-plaza eta 3 hezkuntza-plaza kudeatzen ditu, haren babesean daudenek non bizi izan dezaten, bizimodu autonomoa izateko moduan diren bitartean.
Alokairuko etxebizitzan bila dabiltzanen diskriminazioaren aurkako Gasteizko plataforma	Erakunde kidea	Baztertutako pertsonen alokairuko etxebizitza lortzen laguntzen dieten Gasteizko hainbat erakundek osatutako plataforma.
Sareak Josten	Erakunde kidea	Gasteizko plataforma bat, kolektiboen artean sinergiak sortzeko eta dibertsitatea elementu positibo bat dela ikusarazteko xedea duena.
Red de Castellano Araba Tipi-Tapa	Entitate atxikia	Gaztelania ikasteko hiriko eskaerari erantzutea du helburu. Urtean 500 lagun beharrei erantzuten die.
Ongi Etorri Errefuxiatuak Bizkaia plataforma	Entitate atxikia	Ongi Etorri Errefuxiatuak plataformaren xedea Bizkaiko herritarrek sentibilizatzea da, errefuxiatuek bizi duten drama humanitarioaz jabe daitezen, apurka-apurka gizarte solidarioago bat egiteko

# Iraunkortasun ekonomikoa


Urtero bezala aurten ere, CEAR-Euskadik bere kontabilitateari kontu-ikuskaritza egin diezaiotela eskatu du, bere borondatez; lan hori PKF ATTEST Servicios Empresariales SL enpresak egin du, eta aldekoa izan da. Jarraian jaso diren kontuek zehatz-mehatz adierazten dute nolakoa zen CEAR-Euskadiren egoera 2016ko abenduaren 31n ondasunei eta finatzei dagokienez.

## CEAR-EUSKADI (EUSKADIKO ERREFUXIATUEN LAGUNTZARAKO BATZORDEA) BALANTZE LABURTUAK, 2015EKO ETA 2016KO ABENDUAREN 31N (EUR OTAN)


AKTIBOIA	2016	2015	AKTIBO ZIRKULATZAILEA	2016	2015
<b>AKTIBO EZ-ZIRKULATZAILEA:</b>			<b>ONDARE GARBIA ETA PASIBOA:</b>		
Aktibo ibilgetu immateriala	3.388	-	Elkartearen funtsak -		
Aktibo ibilgetu materiala	4.292	3.915	Gizarte-funtsa	213.418	213.418
Epe luzerako finantza-inbertsioak	1.129	1.129	Aurreko ekitaldietako soberakin negatiboak	(29.045)	(80.199)
<b>Aktibo ez-zirkulatzailea, guztira</b>	<b>8.809</b>	<b>5.044</b>	Ekitaldiko soberakinak	18.103	51.154
			<b>Ondare garbia, guztira</b>	<b>166.270</b>	<b>184.373</b>
<b>AKTIBO ZIRKULATZAILEA:</b>			<b>PASIBO EZ-ZIRKULATZAILEA:</b>		
Izakinak	1.929	4.880	Epe luzerako zorrak -		
Erabiltzaileak eta jardueraren berezko zordunak	-	20.800	Epe luzerako beste zor batzuk	124.970	111.684
Merkataritza-zordunak eta kobratzeko beste kontu batzuk -			<b>Pasibo ez-zirkulatzailea, guztira</b>	<b>124.970</b>	<b>111.684</b>
Beste zordun batzuk	548.718	506.068	<b>PASIBO ZIRKULATZAILEA:</b>		
Taldeko entitateetan eta epe laburrerako elkartutakoetan egindako inbertsioak	-	1.797	Epe laburrerako zorrak -		
Epe laburrerako finantza-inbertsioak	919	551	Epe laburrerako beste zor batzuk	390.728	354.712
Eskudirua eta likido baliokideak	196.516	207.033	<b>Pasibo zirkulatzailea, guztira</b>	<b>390.728</b>	<b>354.712</b>
<b>Aktibo zirkulatzailea, guztira</b>	<b>748.082</b>	<b>741.129</b>	Merkataritza-hartzekodunak eta ordaintzeko beste kontu batzuk		
<b>AKTIBO ZIRKULATZAILEA</b>	<b>756.891</b>	<b>746.173</b>	Beste hartzekodun batzuk	74.923	95.404
			<b>Pasibo zirkulatzailea, guztira</b>	<b>465.651</b>	<b>450.116</b>
			<b>ONDAREA ETA PASIBOA, GUZTIRA</b>	<b>756.891</b>	<b>746.173</b>



## URTEKO KONTUAK - 2016: DIRU-SARRERAK [ DIRU-SARRERAREN JATORRIA ]



## URTEKO KONTUAK - 2016: GASTUAK [ GASTUEN BANAKETA ]



# Finantzatzaileak/Laguntzaileak

## ■ Finantzatzaileak



## ■ Laguntzaileak



ATZEKO AZALEKO ARGAZKIA

© Teresa Palomo. 2014ko maiatzaren 28an, 450 kamerundarrek hesia gaingitu ostean, migratzaile haietatik bi hesiaren ondoko kale-argietara igo ziren, baina, 6 orduren ostean, Guardia Zibilak bero-beroan itzuli zituen.




[ Eskaneatu kodea mugikorrarekin  
eta egin CEAR-Euskadiko bazkide ]



**Lagundu pertsona errefuxiatuen  
eskubideak defendatzen**

[www.cear-euskadi.org](http://www.cear-euskadi.org)

**Jarrai gaitzazu sare sozialetan**

 [www.facebook.com/CEAREuskadi](http://www.facebook.com/CEAREuskadi)  
 [www.twitter.com/CEAREuskadi](http://www.twitter.com/CEAREuskadi)  
 [www.youtube.com/CEAREuskadi](http://www.youtube.com/CEAREuskadi)

### [ CEAR Euskadi ]

**Bilbo**

Kristo kalea 9 B, 5. solairua. 48007 Bilbo (Bizkaia).  
tel.: 94 424 88 44

**Vitoria-Gasteiz**

Aldabe kalea 7. 01012 Vitoria - Gasteiz.  
tel.: 945 266 805

**Donostia**

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren kalea, 1  
20011

**CEA(R)** EUSKADI  
Euskadiko Errefuxiatuen  
Laguntzarako Batzordea